



KURSAAL

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Kursaal balantzea 2023

Markak hausten ditu, eta jarduera eta diru-sarreretan hazten jarraitzen du

- Kursaalek eta Miramar Jauregiak 55 milioi eurotik gorako inpaktu ekonomikoa eragin dute

Kursaalek gaur goizean aurkeztu du prentsaurrekoan 2023ko jardueraren balantzea. Urtea jarduera-maila bikainagatik nabarmendu da eta berriro markak haustea lortu du. Kursaal Elkarteak, 2020tik Miramar Jauregiaren kudeaketaz arduratzen denak, Gipuzkoan 55,4 milioi euroko eragin ekonomikoa izan du bi egoitzen artean.

Kursaaletik eta Miramar Jauregitik etorritako diru-sarreraren fakturazio bateratuak 5 milioi euroko negozio-bolumena sortu du, aurreko urtean baino % 4.2 gehiago.

Era berean, diruzaintza operatiboaren **superabit bateratu berri bat** lortu da, EBITDAri dagokionez **823.271 eurora iritsiz**, jardueraren eta diru-sarreraren maila bikainaren ondorioz, gastuaren kudeaketa eraginkorraz gain. Lorpen horri esker, 2023an egindako gastu arrunta eta inbertsio osoa finantzatu ahal izan da (685.866 euro).

Joan den urtean, Kursaaleko egoitzan **326 ekitaldi** egin ziren, eta **362.854 pertsona bertaratu** ziren. Horrek guztiak, 2019ko negozio-bolumenaren errekorra gainditzea ahalbidetu du. Eraitza bikain horiek jardueraren funtsezko segmentuen portaera onean oinarritzen dira. Alde batetik, kultur arloan, **garrantzi handiko kultur programazioak** bultzatuta, fakturazioari dagokionez bigarren urterik onena lortu da Kursaalaren historian. Bestalde, **errekor historikoa lortu da jarduera korporatiboan**, konbentzio eta jardunaldien fakturazioan % 46ko igoera izan baita. Baita ekitaldiei lotutako zerbitzuen merkaturatzean ere, hala nola ikus-entzunezkoetan, argiztapenean eta beste zerbitzu tekniko batzuetan. Gainera, **kongresu-jarduera** ere nabarmentzekoa da, % 13 igo baita biltzarkideen kopurua 2022ko datuekin alderatuta.

Eraitzen balantze horri, bestalde, zerbitzuak ematean kritikoa den elementu bat gehitzen zaio: **bezeroen gogobetetze-maila handia**. Ekitaldien antolatzaileei egindako inkesten arabera, Kursaalek eta Miramarrek **8,9ko batez besteko puntuazioa** lortu dute, orain arte jasotako puntuaziorik onena.

Nabarmentzekoa da, halaber, 2024rako onartutako **4,2 milioi euroko inbertsio-plan garrantzitsua**. Plan horrek hainbat hobekuntza ahalbidetuko ditu, hala nola ekipamendu eszenikoa berritzea, barne-prozesuetan digitalizazioa inplementatzea eta Kursaal auditorioko B eremuko besaulkiak eguneratzea. Era berean, Miramar Jauregia birmoldatzeko lanen lehen fasea hasteko aukera emango du.

Zurriola Hiribidea, 1
20002 Donostia - San Sebastián

Tlf: +34 943 00 30 00
Fax: +34 943 00 30 01
Mail: kursaal@kursaal.org

www.kursaal.org

2023: Nazioarteko izen handiak Kursaal

Kultura izan da aurten ere jauregiaren jardueraren zutabeetako bat. 2023an, 145 kultur ikuskizun egin ziren, 248.184 ikuslerekina, eta horietatik 27 Kursaal Eszenaren proposamenak izan dira, Kursaal leko programazio propioa, guztira 29.577 ikuslerekina, 2022an baino % 20 gehiago.

Kursaal Eszenaren proposamenaren artean, **Benito Lertxundiren**, **Zaz abeslari frantsesaren** eta **Ojete Calorren** sold out delakoak nabarmendu behar dira. Era berean, **Jethro Tull**, **Luz Casal**, **Steve Hackett** edo **Robert Plant** bezalako izen nabarmenekin osatutako programazioa eskaini du. Musika klasikoko kontzertuen artean, honako hauek nabarmentzen dira: **Salzburgoko Mozarteum Orkestra** eta **Trevor Pinnock**, **Parisko Ganbera Orkestra**, **Jordi Savall**, **Eliseo Zelaletako Orkestra** eta **Philippe Herreweghe**, **Koloniako Irratiko Orkestra**, **Netherlands Bach Society** eta **Budapesteko Franz Liszt Ganbera Orkestra** edo **Vivian Hagner**, **Jakub Jozef Orlinski** eta **Javier Perianes** bakarlariak. Halaber, Kursaal Eszenako eskaintza osatu dute haur eta familientzako ekoizpenek eta Eskola Kontzertuek.

Kursaal leko agertokietan programatzen duten **sustatzaile pribatuek** kontzertu gogoangarriak ere ekarri zituzten, hala nola **Bob Dylanena**, 2015etik Donostian emanaldirik eskaini ez zuena. Era berean, publikoak **Manolo García**, **Andrés Calamaro**, **Vanesa Martín** eta **Ara Malikianen** emanaldiez gozatu ahal izan zuten. Komedia ikuskizunek ere aretoetan arrakasta handia lortu zuten, besteak beste, **Mentes Peligrosas**, **La Ruina**, **Luis Piedrahita** eta **Miguel Lago**.

Eta ohikoa denez, ikuskizun horiei **Euskadiko Orkestraren** abonu-denboraldikoak, **Musika Hamabostaldiko** kontzertuak edo **Jazzaldia** gehitu behar zaizkie, **Zinemaldiko** zinema emanaldiez gain.

Bileren urterik onenetakoa

Iaz 181 biltzar- eta bilera-ekitaldi izan ziren Kursaal, 2022an baino % 24 gehiago. Azken urteetako kongresu-jarduera sendotzearen eta jarduera korporatiboan emaitza bikainak lortzearen ondorioz, egindako konbentzio eta jardunaldien kopurua nabarmen handitu bait da.

Joan den urteko kongresu-jardueraren mugarrietako bat **Familia eta Komunitateko Medikuntzaren Espainiako Elkartearen (Semfyc) XLIII. Kongresua** izan zen, osasunaren arloko 1.500 profesional baino gehiago bildu zituena maiatzean. Bilera profesionalen artean, nabarmentzekoak dira, halaber, **Gizarte Ekonomiari buruzko Europako Konferentzia**, maila goreneko erakundeetako ordezkariak bildu zituena; **Turespaña III. Konbentzioa**; **AMLAP Kongresua**, Basque Center on Cognition, Brain and Language (BCBL) erakundeak antolatua; eta **Ayesa-Ibermática Konbentzioa**, enpresa-bilera bat, eraldaketa digitalarekin eta sektore teknologikoko berrikuntzarekin lotutako gaiak jorrazteko. Halaber, nabarmentzekoa da **Physics and Applications of High Brightness Beams** topaketa, UCLA Kaliforniako Unibertsitateak antolatua, nazioarteko zientzialariak eta ikertzaileak bildu zituena.

Club de Creativos-en topaketa eta **San Sebastian Gastronomika** kongresua izan ziren beste kongresu protagonista batzuk, biak gaur egun Kursaal egoitza dutenak.

2024. urteari begira, eta orain arte, zenbait kongresu garrantzitsu programatuak daude, horietako % 75 nazioartekoak direlarik; horien artean, nabarmentzekoak dira **Bioequity Europe**,

Europako nazioarteko erakusketa nagusia eta enpresa bioteknologikoetako inbertitzaile eta zuzendari exekutiboen topagune nagusia, edo **Quantum Matter Nazioarteko Konferentziaren laugarren edizioa**, zientziarekin eta informazio kuantikoaren teknologiek zerikusia duten komunitateak biltzea helburu duena. Bi kongresu horiek garrantzi handikoak dira, eta lurraldeak zientziaren eta teknologiaren arloan egindako apustuarekin lerrokatuta daude; izan ere, nazioarteko proiektiorako eta bikaintasunerako zentroak daude bertan kokatuak. Estatu mailan, **Psikiatriari buruzko XXVII. Kongresu Nazionala** eta **SEGOren Lurzoru Pelbikoari buruzko XI. Kongresu Nazionala** ere nabarmentzen dira.

Miramarren jarduera hazten doa

Azken urtean, Miramar Jauregiak jarduera-erritmo sendoarekin jarraitu du, eta **235 ekitaldi** izan ditu, guztira **24.870 bertaraturekin**. Gainera, **2022ko diru-sarrerekin alderatuta urtea % 6ko gehikuntzarekin itxi zuen**, eta berriz ere **diruzaintzako superabita** lortu zuen.

Iaz egindako kongresuen artean, nabarmentzekoak dira **2D Materials Kongresua**, **Workshop S-Snom** eta **Organic Battery Days 2023**, nanoteknologian, optikan eta energia berriztagarrietan adituak eta profesionalak erakarri zituzten nazioarteko ekitaldiak. Baita **Osasun Digitalari buruzko Nazioarteko X. Kongresua** edo Emakundek antolatutako **Berdintasunerako Nazioarteko Kongresua** ere. **Udako Ikastaroen** programazio zabala ahaztu gabe, aurreko edizioan lurraldean emandako 133 ikastaroetatik 95 Miramar Jauregian egin ziren.

Garapen ekonomikorako eta gizarte-eraldaketarako plataforma

Kursaal sozietateak **2024-2027 plan estrategikoa** egin eta onartu du. Bertan, erakundeak datozen urteetarako duen ibilbide-orria jasotzen da, eta Sozietatearen asmoa berritzen da, lurraldearen garapen ekonomikorako eta eraldaketa sozialerako plataforma gisa.

Planak datozen 4 urteetarako jasotzen dituen ardatz nagusietako batzuk honako hauek dira; **jasangarritasunaren** hiru dimentsioetan (ekonomikoa, soziokulturala eta ingurumenekoa) ekarpena indartzea, **eraldaketa digitalarekin** jarraitzea, hirirako eta lurralderako **strategikoak** diren sektoreen bilerak eta ekitaldiak bultzatzea edo bilerek tokian sortzen duten **gizarte-ondarea** bultzatzea.

Ikuspegi horrekin bat etorritik, Kursaalek jasangarritasunarekiko konpromiso sendoa izan du ireki zenetik, funtsezko bi premisarekin lan eginez: egindako jardueren ingurumen-inpaktua minimizatzea eraikinaren ikuspegitik, eta kontsumo arduratsua sustatzea langileen, enpresa antolatzaileen, hornitzaileen eta ekitaldietako parte-hartzaileen artean. 2023an egindako inbertsioetako bat eguzki-plaka fotovoltaikoak instalatzea izan zen, 258 kW-rainoko edukierarekin, eta horrek jauregiko energia-kontsumoaren % 13 emango duela estimatzen da, honekin CO2 emisioak 52.500 kg inguru murriztuz urtero.

2023ko jardueraren balantzea: <https://youtu.be/8ZX-hMMb0b4>

2023ko kongresuen irudiak:

https://www.flickr.com/photos/kursaal_palacio_de_congresos_san_sebastian/albums/72177720309541714

https://www.flickr.com/photos/kursaal_palacio_de_congresos_san_sebastian/albums/72177720313549126

Donostia, 2023ko otsailaren 29a